


Astekaria

# BARREN elgoi



Antonio Marquez  
Erleen igeltseroa



## LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana II. 74 10 II - ELGOIBAR



111 ZI, ostirdean

**DISCO GUASS**

**GijalTY MADRID**

**N A C H O**  
DIVISION

**+ P.G.-2 & GUASS D.J'S**

sarrera  
1000 pta.

laguntzaileak



**LEVEL  
MUSIC**

Irati Agirreazalcegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansoa, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Eixaniz, Sugor Etxaniz, Felix exeberría, Izaro Etxegibel, Enetz Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Gui116, Maite Iriondo, Ekaitz isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Moya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inozio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olgo Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zaboleta.

elgoiBARREnek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Hau ez da Ipar Irianda

**E**tengabe gure berezko nortasuna aldarrikatzeko honen joera nabarmena dugun herri honetan -Euskal herrian, alegia- ez dakit nola arraio ekiten zaion arinki besteekiko berdintasunak bilatzeari.

Ipar Irlanda edo Ulstergo sei konterritan bizi den jendeak hemengook ez ditugun ezaugarriak dituzte, hala nola bi sinismen mota: katolikoak dira nazionalista irlandarrak eta protestanteak nazionalista britainiarrak edo unionistak, baina ez da hau herri haren historia tristearen bereizgarririk nagusia. Batzuen eta besteen jarrerak defendatzeko talde terrorista desberdinek mikaztu, odoldu dute Ulstergo bilakaera joandako dozena bat urtetan. Katolikoek IRA talde sofistikatua dute. Protestanteek hiru talde dituzte: Ulster Freedom Fighters, Ulster Defense Force eta Ulster Volunteer Force, bata bestea baino bortitzagoa.

Han aipatutako lau talde terroristok kupidarik gabe aritu dira, askotxotan, zibilen aurka -eta honekin ez dut esan nahi zilegi denik militarrek hiltzen ibiltzerik,


etengabeko odol ixurketa eta egoskorkeriari Iotuta etorkizun beldurgarria besterik ez zegoen Ulstergo herritarrentzat.

Beti bezala, herriak borondatetsuago dira politikariak baino. Joan den irailaren 1 ean IRA talde terroristak su etena iragarri zuenean talde politiko protestanteetako buruzagi radikalek zitalki erantzun zuten. Ian Paisley apaiz eta politikoak gezurtero eta nazkagarritzat jo zituen bai IRAkoak bai Sinn Fein-aren alderdi politikoko agintariak ere. Belfast-eko auzune protestantean ostera, bestelako jarrerak ikusi ziren. Auzokoek karteltzarra eskegi zuten horma batean, zera zioen: bihotz onaz eta itxaropenez hartzen zutela IRAREN iragarpena.

Dirudienez han eta hemen, bietan, nazka nazka eginda dago jendea hilketez, behinik behin hortik etekinik jasotzen ez dugun asko eta asko. Eta hortik aurrera ez joan urrutira Ulster eta gure arteko berdintasunaz.

**Ana Aizpiri**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



[1]

**Urriaren 12a 'Dia de la Hispanidad' izanda eta herri honetan horrenbeste abertzale sutsu egonda, nolatan ez du inork ezer esan jai egun horren kontra?**

**nux**

Emakume batek deitu digu Bernardo Ecenarro kalean dagoen parkea zeharo tristea dela esan eta, dagokionari, umeentzako jolaserako trasteak (kolunpioak, txirristada...) ipini beharko liratekela proposatzeko.

## Bergizarteratzea?

**A**urreko ostiraleko BARRENa jaso, ireki eta irakurtzen hasi orduko harriturik geratu nintzen. Nire ezustea bikoitza izan zen; alde batetik, kalean egingako galdere zein zen ikusi nuen, euskal preso politikoek bergizarteratzea, hain zitzan ere, eta bestetik, BARREneko ohituraren kontra gaiari buruzko iritzi artikulua falta nabaritu nuen.

Bergizarteratzea gai delikatu eta korapilotsua da; nola azter daiteke hain arinki?

Euskal presoek ez dute bergizarteratzerik eskatzen; nor gara gubada, lau lerrotan bergizarteratzea eskaini edo ukatzeko?

Bergizarteratzeaz hain errez hitz egin baino lehen, zenbait gauza jakin beharko genituzke. Ezagutzen al duzu zein egoeratan bizi diren euren aberria maitatu eta bere alde borrokatzeagatik kartzelan dauden Euskal Herriko 600 seine-alabak?

Ezagutzen al duzu euren familiek zer nolako tratua jasotzen duten Espainia osoan zehar seme-alabak ikusi ahal izateko egiten dituzten bidaietan, gehienetan tartean kristala dutelarik, eta 20 edo 40 minutuz baino ez dituztelarik ikusten?

Gai honetaz askoz gehiago esan edota guztiari buruzko analisi sakonagoa egin nezake, arazoa pairatu behar izan dudalako, halako tratu iraingarria sufritzen duten lagunak izan ditudalako eta oraindik baditudalako. Baina horren

ordez, nahia go nuke BARREn gai honi buruzko eztabaida zabal eta sakonago bati ekin diezaiola proposatzea, hau bailitzateke jarraitu beharreko biderik egokiena.

**Agurtzane Bilbatua**

EUSKAL PRESO POLITIKO BATEN NESKA LAGUNA

## Beste elgoibarrat bat Espainiako gartzeletan

**M**ikel Ibañez elgoibartarra Valdetnoroko presondegian dago. Uruguayko Gobernuak estraditatu egin zuen, Lizarralde eta Goitia errefutxiatuekin batera, bertako justizia kontra egon arren, Espainiako Gobernuaren presioei amore emanez.

Uruguayko herriak ondo ulertu zuen euskal militanteen izaera politikoa eta asilo politikoaren defentsan kaleratu zen. Zazpi hildako, bederatzi desagertu, ehundaka zauritu eta desagertu: hau izan zen Uruguayko Gobernuaren erantzuna.

Bien bitartean Elgoibarren erantzuna zabala zuen Mikel, Goitia eta Lizarralderen estradizioak. Egunero manifestazioak, enkarteladak, non ehundaka elgoibartar manifestatu zen, nahiz eta BARREnek ezer argitaratu ez.

Mikel bostgarren preso politikoa duzu Elgoibarren. Mikel bat etorri da presoen kolektiboarekin guse greba egingarrikoan. preso politikoak bergizarteratzearen aurka azaldu dira, beraiek erabat txertaturik daudelako familian, kuadrilan, gizartean, eta irtenbide politikoa exijitu dute, gatazka politiko baten ondorioa delako beraien gartzelaratzea.

**Pedro Mendizabal**



4 **4ste honetako erretratu** Roman Galbusok lagatakoa da. Erretratu Bergaran "Pentekostes" jaietan 1934. urtean ateratakoa da.

Ikus dezagun argazkiari buruz zer kontaktzen digun Romanek:

"Sofiujoleen sariketan parte hartu zuten hiru hauek. Gainera eurak izan ziren hiru Iehenengoak: 1. txapelcluna, Patxi Iturralde (eserita) durangoarra, 2. Daniel Ansola "Ondamendi" (tente eskuman), 3. Norberto Arriola "Galbuso" (tente ezkerrean txapelarekin).

Gogoratuko zerate Patxi nola ibili zen "Los Botxeros" taldean hamaika bazter alaitzen. Bere hezurrak Mexikon lurperatu ziren eta "Ondamendirenak", berriz, Bartzelonan. Beraz, "brontzea" bakarrik bizi da.



## Oburtg:


**Erretratu zaharrak falta zaizkigul Badakigu zuk ere badauzkazula zaharrak eta politik diren erretratuak. Eskertuko genizuke BARREnera ekarriko bazenitu. Mila esker!**



## DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09



## EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK  
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kalea 4-7 74 34 08-04 FAX 74 34 08

## Cordon, Vilarchao, c.b. IDEKCDRAZIC)A.

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Te1.74 28 74 - 74 05 70

## HISPANIA ZURICH

### C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale zig behe. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

# Sa izen, saltzen...



E Plaza Handian gustura ei daude saltzaileak eta erosleak ere bai.

Ostegun goizero, urte osoan zehar ia etenik gabe, kanpotik etorritako saltzailez betetzen da Plaza Handia. Duela hilabete batzuk aparkaleku arazoak zirela eta Plaza Txikitik hara aldatuta, zentru komertzial erraldaien itxura hartzen du ostegun goizero gure herriko plazak, San Frantzisko kaletik hasi eta Plaza Handiraino. "Merkadiloa" izenez ezaguna, "txolloak" topatzeko lekua da batzuentzat. Herriko zenbait merkatarik, ordea, ez dute hain begi onez ikusten astearen behin sortzen den merkatal gune anbulante hori, bezeroak kentzen omen dizkiete eta salmentetan igarri egiten dute, krisi garaian batez ere.

**N**oizkoa den ostegunetako **merkatua** batek **daki**.

Aspaldikoa omen da Karmelo Modamio merkatu plazako giltzazain eta arduradunaren esanetan. "Hamalau" izenez ezaguna den saltzaile azpeitiarra lehenengoetarikoa omen da. Gaurko "Hamalau"ren arbasoek aintzinako merkatu plaza aurreko zutabeen aurrean jartzen zuten saltokia, Sebastiana Ormazabal izeneko beste saltzaile batekin eta Eibarko beste batekin batera. Handik Plaza Txikira eramán zituzten, merkatu plaza zaharra bota egin baitzuten. Urte askotan bere horretan egon ondoren, 70 eta 80. hamarkadetako krisiak eta langabeziak saltzaile anbulanteen gorakada ekarri zuen. Merkadiloaren boom-aren garaia zen, gaurreguneko azokaren itxura hartu zuen. Saltzaile bakoi-tzari eskatzen zituen metro kopurua ematen zitzaion eta horrela, gaur arte. Gaurregun, berriz, hisei metroko postua baino handiago ematea ia ezinezkoa da.

## Merkatu itxia

Duela zazpi edo zortzi urte ezarri zen azken saltokia, berrogeigarrena. Kopuru hori ezin daiteke gainditu;

saltzaile batek saltoki berri bat jarri nahiko balu, beste batek haja eman arte ixoin beharko luke, merkatua itxia baita. Saltokien artetik, iharduera berriek lehen-tasuna izango lukete eta herritarrek ere bai.

Posturik handiena, Elgoibarko "Zamoranoak" dauka 16 metrokin. Hurrengoa "Hamalau"-rena da 14 metrokin. Kasu berezien artean, Iñaki Berra pasaitarren "El loco"ren saltokia dago. Honek bi saltoki ditu, eta biren zergak ordaintzen ditu. Bata berea da eta bestea semearena, guztira 20 bat metroko postua duenlarik.

Aldaketa dela eta saltzaileak gustura dabilta. Goizean goiz, goizeko 6,30ak aldera etortzen dira jeneroa deskargatzera. Ordubete inguru tardatzen dute batazbeste saltoki hat muntatzen eta goiz guttia saltzen eman ondoren, eguerdiko ordubatak aldera, jasotzen hasten dira. Jasotzen ere, muntatzen beste tardatzen dute. Horrela ematen dute aste osoa. Historia berriro errepikatuko da biharamonean, beste edozein herritako plazan.

## Zergak eta arauak

Saltzaileek Udalak ezarritako kuota hat ordaindu behar dute okupatzen duten metro

# "Kalidadie eta modie da jendiak bilatzen dauena"



**D Celestino, noiztik negozio honetan?** - Oin dala 18 urte. Danobateko lana laga ein bihar izan naban, eta andrin aitxe hontan ibiltxa dao bizi guztin. Handik hasi nintzen. Oin Eibarren ere dendia daukat.

**Eta Elgoibarko azokan?** - Berandutxuo, duela 15 bat urte.

**Zer da saltzen duzuna?** - Gehixen bat gizonezkuen jantzixak. Andrazkuenak be bai, galtzak eta bakeruk batez ere.

**D Gehien saltzen dena?** - Segun tenporada eta moda. Momentu hontan gehixen saltzen dana, polarrak dia. Momentuz beste inork ez dakaz holakorik, beste dozena batek ekartzen baitxu...

**D Konpetentzia handia al da?** - Haundixe ez, esajeraua. Dendetan

bezela.

**D Non saltzen da gehiago, azokan ala dendan?** - Azken urtietan azokan. Baina badaude denborada batzuk dendan hobeto saltzen dana.

**Entzun izan dira kaleko dendarien kexak azoka dela eta.** Dendan dauzenak pentsatzen dabe gugaitxik eurak ez dabela saltzen. Hori gezurra da. Ez dou saltzen inon bez konpetentzia esajeraua daualako.

**D Zergarik ordaintzen duzue?** - Nik azokan dendan baino askoze gehixo pagatzen dot. Nik mutil bat dakat hemen eta pagau ein bihar diot, postua ere pagau ein bihar dot, mila ta hirurehun pezta jartzen doten bakoitzin.

**D Ideia garbi batekin etortzen dira erosleak?** - Gehixenak idea fijukin

datoz. Ez du balio merke edo karu saizterik, jendiak eskatzen duna ekartziek baiio du.

**Markari begiratzen zaio?** - Gerua ta gutxio. Generua bilatzen dute, kalidadie ta modie. Nik prezio berian saltzen ditzut dendan edo hemen.

**Inoiz izan duzu lapurretarik?** - Bueno, dakitela behin, ta bestela, ostuko dizkuez.

**D Askok saltzen da?** - Bizimodua ateratzeko lain, egunero lan einda. 12 urtin igandian ere bihar einda nao. Lan polita da, oso.

**D Regateatzen al da?** - Askok, ehunetik larogeita hamarrak.

**D Eta nork irabazten du?** Nere postuan neuk.

bakoitzagatik. Horrez gain, iharduera ekonomikoagatikoz zerga eta autonomoen kuota ordaintzen dute, eta Udaletxeko araudiari errespetua zor diote.

## Irregularitasunak

Elgoibarko Merkataria eta Zerbitzarien Elkartek, Txankakuak, bapatean merkadiloa elizaraino eta San Frantzisko iturri aurre-raino handitu zela ikustean eta Udalak haren kontrolik ez zeukala ikustean, lehen arazoak sortu ziren. Txankakuakoek beraiei ezartzen zaizkien kontrol berdinak haiei ere ezartzeko eskatzen zuten. Txankakuako kideek hainbat irregularitasun zeudela ikusi zuten. Hasteko, merkadiloak ez zuten indarrean dagoen

Merkatal Legea eta Udal araudia betetzen. Edozein eratako elikagaiak saltzea debekatu egon arren, zortzi janari saltoki zeuden: urdaitegiak, meloi saltzaileak, gozoki eta pastel saltzaileak... Osakidetzak ikerketa bat burutu zuen, hainbat irregularitasun topatu zituelarik, elikagaien saltokietan batez ere. Saltoki berdinak okela zein arraina saltzen zuen, saltokiek ez zuten derrigorrezkoak diren horma, zolu eta sabaiak, desinfekziorik ez zegoen batere, garbitasunerako ur korronterik ez, intsektu, animalia eta kaleko hautsen eta zikinen aurkako neurririk ezta ere...



AITOR ZABALA

• - Urtetan egon izan da azoka Plaza Txikian.

Osakidetzaren txostena ikusita, elikagaiak merkatu plazara aldatu zituen Udalak, eliza aldeko saltzaile berriek alde egin zuten eta zerga-araudia betearazi zitzaizen.

Kexak eta istiluak

alde batera lagata, ostegunetako azoka elgoibartarrron bizitzan guztiz errotoa dagoen ohitura da eta datozen urteotan ere, itxura denez, hala jarraituko du izaten.

## Zer iruditzen zaizu ostegunetako azokaren leku aldaketa?



**ROSA M. SAN MARTIN**  
39 urte, enbalajegilea

Lehen saltokiak hobeto ezagutzen nituen. Gai-nontzean ez dago ezber-dintasun handirik. Gauza fijoen bila etortzen naiz, nikiak batez ere, zapatilak...



**CONCHI IRIONDO**  
40 urte, administraria

Hobeto hemen. Ez naiz asko etortzen baina pre-zio aldetik ondo dago, baina sekula ez dut "gan-garik" topatu. Hala ere beti bukatzen dut zerbait erosten.



**PEDRO ROMERO**  
64 urte, jubilatua

Hemen bilduagoa dago eta espazioa ederragoa da. Ostegunero etortzen naiz. Dendak baino mer-keagoa da baina kalitate-an ere aldea dago.



**ANGEL BERISTAIN**  
63 urte, jubilatua

Hemen ere ondo dao. Pasiatzeko lekua kentzen dau eta han, beniz, apar-kalekuak. Baina herrixan bertan izan bihar dau, bestela galdu eitzen da.



**AGUS GARCIA**  
40 urte, kamarera

Plaza Txikian gehiago gustatzen zitzaidan. Leku gehiago zegoela irudi-tzen zait. Buelatxoa egi-tea gogoko dut, eta gau-zatxoren bat erostea ere bai.



**VICTOR MANUEL GONZALEZ**  
21 urte, harakina

Berdin zait. Leku eguz-kitsuagoa da oraingoa, bilduagoa dago. Libre nagoenean etortzen naiz, behar dudana erostera. Orain zapatilak.



ASESORIA  
**GOA**

**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA
- ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29



## Legorburu bigarren izan da Zaldibi<0 aurrekulad txapeketan

Mikel Legorburu, argazkian, joan den igandean Zaldibin burutu zen Juan Inazio Iztuetaren ornenezko II. Aurrekulari Txapelketan, bigarren postuan geratu zen, Edu Muruarnendiarez Euskal Herriko arreskularien txapeldunaren atzetik. Legorburu ezezik, Eneko Gonzalez, Abel Iriondo, Imanol Santos eta Aitor Viriaras elgoibartarrak ere aritu ziren Donostia, Bergara, Irun, Hondarribia, Azkoiti, Oiartzun, Lezo eta Errenderiko dantzariekin batera. Hogei dantzariren artean, lehen bosten artean sailkatu ziren bi elgoibartar. Aipatutako Legorbururen postuaz gain, Abel Iriondo elgoibartarra bostgarren geratu zuen.



### ■ Eskolarteko jokuak antolatzeke bilera

Eskolarteko jokuak hastear daudenez, bilera bat egingo da datorren ostegunean, hilak 20, arratsaldeko 7etan jokuen inguruko gorabeheraz hitz egiteko. Kultur Etxean izango den bilerara dei egiten zaie guraso, irakasle, entrenatzaile eta antolatzaileei. Eskolarteko jokuak datorren larunbatean, hilak 22, hasiko dira. Hiru ikastetxeen arteko kirol iharduera hauetan ia 1000 inguru hurrek hartzen du parte urtero. Taldeka zein banaka egin daitezkeen kirolak aukera ditzakete hurrek: eskubaloia, saskibaloia eta futbola. Hiru hauek derrigorrezkoak dira eta banakakoak: esku pilota, txirrindularitza, atletismoa, xakea, mendizaletasuna...

# 2,11<sup>1</sup> ESAN BAI EUSKAL HERRIARI

## ABERTZALE ETA EZKERTZALE



*Bozkatu*

# HEIRI BATASUNA

## ■ San Viator jaia ospatuko du Pilar ikastetxeak

Pilar ikastetxeak "Pilarica" jaia ospatu zuen asteazkenean. Meza izan zuten eguerdian, Itxaropena abesbatzaren kontzertua segidan eta gurasoentzako lunch-a eguerdian. Asteazkenean zehar, hilaren 21era arte, Querbes Aitaren eta San Viator-en bizitzari buruzko informazio saioak izango dira, eta klase ostean kirol iharduera bereziak burutuko dira. Ostiralean, San Viator eguna ospatuko dute. Goizeko 9etan hasita, jolasak, bideoak, kirolak eta sari eta gozoki banaketa egingo da haurren artean. Arratsaldean jai hartuko dute ikasleek.

## ■ "In Franganti" antzerki taldea Herriko Antzokian

In Franganti taldeko nesken abenturak ikusteko aukera izango da datorren ostiralean, hilak 21, Herriko Antzokian. "Hala ba zan, ez ba zan, sar dadila..." izenburuko lana aurkeztuko du Idoia Sagarzazuk, Olatz Beobidek eta Ane Gabarainek osatutako hirukote umoretsuak, Edi Nadudoren zuzendaritzapean. Farre algarak egiteko aukera bikaina eskainiko du sketch umoretsuez osatutako antzezlan honek. Saioa gaueko 10etan hasiko da, sarrera 350 pta.

## ■ Harrijasotzaileen eskolarako izen ematea

Harrijasotzaileen eskolan martxan dago. Mintxetako Udako Kirol Instalazioetan izango du egoitza eta harnalau urtetik gorakoei begira eratu da. Izen emateko epea hilaren 7tik dago irekita eta eginkizun honetarako azken eguna hil honen 21a izango da. Izen-ematea Mintxetako Uda Instalazioetan egingo da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 74 28 65 (Javier Arriola) edo 74 29 11 (Mintxetako baserria) zenbakietara deitu.

## Bernardo Atxaga literatur lanen sorreraz aritu zen Herriko Antzokian



Bernardo Atxaga izan zen joan den asteartean Herriko Antzokian Ikastolak gonbidaturik. Literatur Sari Nazionala eskuratu zuen gizon honek, "Literatur lan baten sorrera"ri buruzko hitzaldia eman zuen pare bat ordu inguru iraun zuen ekitaldian. "Hunkipena, memoria eta forma", hiru atal horietan banatu zuen Atxagak literatur lan bat. "Lehenik eta behin zerbaitek hunkipena sorrarazi behar du idazlearengan, hunkipen

hori memorian geratzen da beste noizbait berreskuratu eta erabili ahal izateko eta azkenik, oroitzapen guzti horiei forma eman behar zaie. Forma ematea izaten da zailena". Adibideak eta bizipenak azaldu zituen bai eta bere zenbait testu ezagun irakurri ere, "Euskarari buruzko minutu bateko manifestua" adibidez. Ekitaldia bukatzeko, Antzokira hurbildu zirenen galderak erantzun zituen "Obabakoak" liburuaren idazleak.



**Pilar ikastetxeak**, ikasleentzat jangela ireki berri du. Aurrerantzean nahi duten guztiek aukera izango dute ikastetxean bertan bazkaldu ahal izateko. Interesa duten gurasoek 74 13 31 telefono zenbakira deitu dezakete informazio gehiago eskatzuz.

## Igandean amaituko da Errotatxok antoiatutako HIESari buruzko astea



HIESa izan da eztabaidagai aste osoan zehar Errotatxo Elkarteak Zazpiki irratia-aren laguntzaz antolatutako jardunaldietan. Hitzaldi ugari eta Kultur Etxeko ganbaran orandik bisita daitekeen HIESari buruzko erakusketa izan dira astean zehar burututako ekitaldi nagusiak. HIESaren tratamendurako medizina alternatiboa, HIESaren gaurrengungo egoera eta HIESarekin elkarbizitza, azken hau benetan gai korapilotsua, izan dira hitzaldiotan eztabaidagai.

Gaur ostirala, hilak 14, "El

aceite de la vida" pelikula proiektatuko da Herriko Antzokian. Larunbatean, hilak 15, gaueko 10etan hasita, Kili-Kolo taldearen eskutik, kafe-teatroa izango da Maalako parkean.

Igandean, eguerdiko 1 ean HIES az hil direnen oroimenezko ekitaldia burutuko da Plaza Handian Haritz Taldearen, Txalaparta Taldearen eta Bertsolari Eskolakoen partaidetzaz. Jarraian giza katea egingo dute herriko kaleetan zehar.

## ■ Hilaren 29an amaituko da Olivellaren erakusketa

Eduard Olivella Bartzelonako argazkilaria-aren 23 argazki, tamaina handikoak guztiak, daude ikusgai Atzola Dorreko erakusgelan hil honen 29a arte. Olivellaren erretratuetan idazkerak, irudiak adinako garrantzia dauka. Manipulatutako argazkiak dira. Arau estetiko klasiko guzti-ekin apurtzen du egileak, argazkiak deformatuta eta hautsita daudela dirudite. Batzuk zuri-beltzekoak dira, besteak kolorekoak, guztietan bakardadea eta isiltasuna agerikoa delarik. Olivella Estatuko argazkilaria interesgarrien artean dago, munduko galeria garrantzitsuetan egin ditu erakusketak. Gaur egun, Argazkilaritzaren Historia irakasten du Institutu d'Estudis Fotolgrafics de Catalunya zentruan eta bertako Dokumentazio Saileko arduraduna da 1979. urtetik.

## ■ Nitxo- en hustuketa

Datozen egunotan 1984. urtean hildakoen nitxoak hustuko ditu Udalak hamar urteko epea bete baitute. Honi buruzko argibiderik jasotzeko Udaletxera zuzendu.

# Euskadi berriarekin elkar zatez.



Eman botoa  Eftli PNV

## Antonio Ylarquez:

### "Erlea animaliarik inteligente eta harrigarriena da"

Gure inguruan erleren bat dabilela ikusiz gero eskua astindu eta ahal den azkarren aldamenetik kentzen saiatzen gara gehienok. Hau, ordea, ez da Antonio Markezen kasua.

Txiki txikitatik erle artean ibiltzea da Antonioren zaletasunik handiena, igeltsero lanetik kanpo daukan denborapasa gogokoena. Itziarren eta Elgoibarko Irunabe,

Salegi eta Errezabal baserrietan 70 erlauntza edo kolmena ditu, guztira 210.000 erle inguru. Aurten 500 kilo ezti atera ditu baina berarentzat hori ez da garrantzitsuena.

"Erleen mundua zoragarria da, beraien ondoan gauza interesgarri asko ikasi ditut. Oraindik ere harrituta lagatzen nau animalia hauen inteligentziak".

- Zella hasi zinen erlauntzan?

Mutil koskorra nintzela nere aitak erleak hartu eta lata batean sartzen zituela gogoratzen dut. Erle erregina ez zuen hartzen eta horregatik denek ihes egiten zuten ezirik egin gabe. Ni eta nere anaia Juanek aitaren bidea jarraitu dugu baina berak baino zerbait gehiago ikasten ahalegindu gara. Hark ez zuen karetarik, ez guanterik ez eta kerik ere erabiltzen erleen ingurura hurbiltzen zenean.

- Zelakoa da erleen mun, dua?

Harrigarria benetan. Erlauntza bakoitzean hiru erle kategoria daude. Maila kaskarrena "zangano" edo erlarnandoena da. Hauek %30a dira, denak arrak. Ez daukate boteririk eta ez dute ezer ere ez egiten, ezta jan bakarrik. Erlauntzaren gainontzeko %70a erleek osatzen dute, emeek. Lan guztia egiten dute: loreetako poiena hartu, ezti egin, erlauntza zaindu eta garbitu... Eta azkenik, guztia kontrolatu eta aginduak ematen dituen **erle erregina da**. Erlauntza bakoitzean erregina bat bakarrik egoten



**"Erreginak 2.500 inguru arrauntza jartzen ditu egunero"**

da eta agintzeaz gain arrauntzak ere ipintzen ditu, 2.500 inguru egunero. Erle erregina jaun eta jabe da, berak esaten duen guztia egiten dute erle langileek. Horregatik, nik beti esaten dut erleak diktadura baten menpe bizi direla. Erlauntzaren barruan guztia oso ondo egituratua dago eta bakoitzak badaki zein den bere eginbarra. Ezagutzen dudan mundu ordenatu eta zorrotzena da.

- Zer neurri hartzen dituzu erle artean ibiltzeko?

- Lasaitasuna edukitzea

beharrezkoa da. Asko mugitzen bazara erleek beldurtu eta zizt egongo dizute seguruenik. Komenigarria da baita ere gorputzean inolako usainik ez edukitzea, horela ez baitugu beraien arreta erakarriko. Bestalde, nik beti bata zuria ipintzen dut hau baita kolore disimulatuena. Erlauntzara heldu eta berehala kea botatzen dugu gure presentziaz ohar ez daitezen.

- Izan al duzu inoiz istripu edo susturik?

Urtero 200 bat erlek

egiten didate zizt baina ohitua nagoenez ez didate inolako kalterik egiten. Gauza normaia da. Erle artean ibiltzeko eguraldia ere oso kontuan hartu behar da. Onena 15 eta 20 gradu arteko tenperatura eta eguraldi eguzkitsua dira. Bero edo hotz gehiegi egiten badu, erleak ez dira gustura egoten eta zaila da euren artean ibiltzea. Bestalde, eguneko mementurik egokiena eguerdia da, orduantxe egoten baitira lanean. Atsedena hartzen daudela molestatzen badiegu asko haserretzen dira.

Urtean zenbat ezti ematen dizute erieek?

- **Aurten nere 70 erlauntzek 500 kilo eman dizkidate.** Ez dago batere gaizki. Hemen, Euskal Herrian, uztailean egiten dute ezti erleek. Ordurako dena salduta edukitzen dut, enkarguz edota lagunek eskatuta. Alkarria eta Andaluziako eztiak tama handia daukaten arren, neretzako hemengoa askoz finagoa da. Ni jaiotzen herrian, Cordobako Fuente Ovejuna, ezti asko egiten da baina hemengoa eramaten dudanean oso tzustura jaten dute.

AITOR ZABALETA

**Alfonso** AL'Urbiñal 81,

OSTARKU argazki dendakoa




- **Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio al du? I** Askotan bai, gehienetan bai.
- **Zein da zure perfil ona?** Ez dakat idearik ere, sekula ez dut pentsatu.
- **Kolorea ala txuri beltza nahiago? I** Lanerako orokorrean kolorea, baina argazki artistikoetarako txuri beltza.
- **Zure izaera "negatiboa" ala "positiboa" al da?** Positiboa naizela esan go nuke, gauza txarrek ere badute beren alde ona.
- **Zerk erretzen zaitu?** Garraxiek, gauzak lasai hitz eginaz konpondu daitezkeela uste dut.
- **Zure bizitzan jaso duzun "flashik" handiena? I** Nere alabaren jaiotza beharbada.
- **Elgoibarko argazki bat bazenu txuri beltzean aterata, zein kolore emango zenioke?** Euskal Herriak duen kolorea, berdea.
- **Zer nahi zenuke ikustea kamararen objetibotik? I** Nere alabaren jaiotza ikusi eta mementu hori isladatu nahi nuke.
- **Zure bizitzako edo izakerako zein atalekin egingo zenuke "zoom atzera" (txikitu)?** Izaera irekia goa izan nahi nuke, nahiko itxia naiz eta.
- **Eta alderantziz, zerekin egingo zenuke "zoom aurrera" (haunditu)?** Eg unak 24 ordu baino gehiago izatea nahi nuke.
- **Oroitzapen berezi bat gogora arazten dizun argazki bat?** Ezkondu nintzen egunean ateratakoak.
- **Afiziorik?** Argazkilaritza ofizioaz gain afizioa ere bada baina motorra eta eskiatzea ere asko gustatzen zaizkit.
- **Zeren truke salduko zenioke zure arima deabruarl? »** Ezeren truke, ez du pena merezi.
- **Zer esaten dizu ispiluak goizero? I** "Nolako 10 aurpegi daukazu!".
- **Gogoratzen al duzu noiz egin zenuen barre azken aldiz?** Atzo gaueart. Urte t'ardi daukan alaba mahats sorta batekin etorri zitzaidan eta aleak banan banan ahora ematen zizkidanean barre asko egin genuen.
- **Dantza egiteko musika?** Edozein, asko gustatzen zait dantza egitea, soltea eta bikotearekin.

**GUASSAK BADU KANTERA****DOINUA:**Saratarra naizela  
(hamarreko txikia)

Zapatua askorentzat domeka bezpera (berriz) nahi baino lehena go o ohi du gu etxera, baina urrunetikan datoz gu artera Guassaren alde egin dutenak aukera ostiralean hasi ta astelehenera. (berriz)

Guassak hala zuzendu du antolakuntza (berriz) ne gozinoa ditu sustrai eta zuntza. Udaletxeak ere halako laguntza futbolera ohi bezala gazteria bultza geroan denak joan daitezen haruntza. (berriz)



ASIER ETXANIZ

**HERRI BATASUNAREN MITINA****Asteartea 18, arratsaldeko 7,30etan Herriko Antzokian****H1ZLARIAK: Jone Goilizeltala eta Iñigo Iruin**

## MOTZAK

### Patxi Arriola ehiztaria Gipuzkoako txapelketan izango da

La Unioneko Patxi Arriola ehiztariak datorren azaroan burutuko den Gipuzkoako Ehiza Txapelketarako sailkatzea lortu du, joan den Iarunbatean San Migel auzoan izandako zonako ehiza txapelketan hirugarren postua eskuratu ondoren. Arriolak bost faisai bota zituen, bigarren sailkatuak baino bat gutxiago eta irabazleak baino lau gutxiago. Zonako txapelketan herriko hiru ehiztarik parte hartu zuten, guztira 30 faisai banatu ziren, hauetatik 24 hil zirelarik.

### Kiroldegiko zerbitzuak doan 12tik 23ra

Kiroldegia "ate irekiak" kanpaina burutzen ari da hil honen 12tik. Hori dela eta, doan erabili ahal izango dira piszina eta muskulazio gela hilaren 23ra arteko egunetan. Sauna bazkideek doan izango dute, eta bazkide ez direnei 200 pta kobratuko zaie. Ikastaroetan asistentzia librea izango da eta frontoia doan goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak arte astelehenetik ostiralera. Bazkideek doan izango dute frontoia urte guztian zehar ordu horietan.

### Aitor Juaristi:

## "Ehiztarixak ez gera depredadoriak"

### I Zer moduz zona txapelketan?

- Ondo ez. Txorixak gaizki repartiduta, gehixenak goixan zeuden eta ni behian.

**Azken aldian txapelketarik irabazi duzu?** Bai, San Migelen oin dala hiru aste. Lenengua izan zan. Txakurra ondo ibili zan ta eskerrak hari, bestela, ezer ez.

### I Gaztetasuna bentaja al da?

- Bah! Jendia harritsu eitxen da hoiako ehiztari beteranueri irabaztiarren. Gaztetan afiziva eta gogua handixaua izaten da. Baina beteranuen kontra... zaila, haiek asko dakixe.

**I Txakurra garrantzitsua al da, eta konpenetrazioa?** - Fundamentala. Txakurrak hegatzixak topau bihar ditxu. Ehiztarixak eta txakurrak elkarrekin hitz egin bihar dabe eta aginduak eman.

**Nola Iortzen da hori?** - Lenaotik ibili bihar, txakurrari erakutsixaz.

### I Zein da txakurraren funtzioa?


- Txorixak soltatzen dabenian bila jutun gera. Bilatzen dabazenian geratu eitxen da. Zeu jun ta tirua jaurti. Botatzen dozunian txakurrak hartzen dau.

### I Txakurrik gabe egiten da ehiztarik?

- Bai. Txakurrrakin ein leike oilagorretan, faisanetan, eperretan eta galeperretan. Txakurrik gabe, pasian, birigarrotan...

### I Beda ireki al da?

- Bai, igandian. Jun



ginan baina... batere ez zan pasau. Oindio ez da tenporada ona. Pilarika egunian hasten da pasadia, hego hai-ziak laguntzen badu!

**I Hego haizea ona al da?** - Bai, ona da. Zenbat? Bi ehizatzen badia nahikua, bi asko da. Txori asko dao baina ikusi ez, altu pasatzen dialako.

**I Beda noiz bukatzen da?** - Otsailian edo. Usua laster amaitzen da, gero birigarria, zozua. Neguan oilagorra eta hegabera, danetik. Txori asko etortzen da kanpotik.

**I Zenbat txakur dauzkazu?** - Bat, "setter ingles"a. Arrazakua bada, ona ertetzeko posibilitade gehixao.

**I Punteria ala suertea?** - Suertia gehixao, punterixia euki ein bihar dozu baina suerterik ez badao...

**I Ekolojista sentitzen zara?** - Natura errespetatzen dou. Gu ez gera depredadoriak. Noiz eta zer ehiztatu esaten dabenian ehizatzen dou. Bestela jai dao.

**I Ba al dago kotorik?** Hemen ez, Burgosen, Naparruan. Kotuan animali gehixao eoten diaz. Oin dabiz hor Madarixa aldian isten, han ez dao ehizarik eitxerik. Pare bat urtian itxi ta gero zabalduko balebe...

- Adina: 16
- Beste kirolik? Esku pilota.
- Hegaztarik politena? Oilagorra.
- Jateko gozoena? Oilagorra.

**ANCHUSTH:GUI** s a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arriola, 6-8  
behea  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregilorre, 10 14 behea  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
20870 ELGOIBAR  
Gipuzkoa

**KAFETEGIA**  
74 42 65

PINTXO HOTZAK BEROAK  
ETA KAZUELATKOAK

ot. n<sup>o</sup> 44

Santa Klara -22  
74 2 6 32

# Atletismo finalak (atletismo) Mintxetan

Larunbatean, hilak 15, atletismo eskolak antolatuta, hiru ikastetxeen arteko finalak jokatu dira 60 metroan, 800 metroan, pisuan eta luzera jautsian. Kurtso, sexu eta froga bakoitzeko hiru ikaslek hartuko dute parte. Lasterketak goizeko 10etan hasiko dira Mintxetako atletismo pistan. Finalen ostean, izena emateko epea irekita egongo da Mintxetako idazkaritzan. Haur kopurua

eta kirol iharduerak zehazten direnean kluba lanean hasiko da. Legalki eratzeko lehen urratsak eman dituzte dagoeneko, estatuak egiten dihardute eta fundazio aktak ere martxan daude. Klubak ez dauka izenik oraindik, baina bi dira aukeran dituztenak: bata lehengo Ego-Toki eta bestea, Txankakua, Merkataria eta Zerbitzarien izen bereko elkarteak diruz laguntzen baitie.



## KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



**Herri kirol** saio bikaina eskaini zuten Errosario kaleko jaietan Mintxetako gaztetxoak eta Jabier Arriola "Egi"k. Mintxetako gaztetxoak zaletasunik eta indarririk falta ez zaiola erakutsi zuten 35 eta 30 kiloko harria erraztasunez menperatzean. Egi ere ez zen gutxiago izan, eta bien artean saio polita osatu zuten. Kirol ekitaldiek larunbatean izan zuten jarraipena. Lagunak Eskolako pilotarien ostean, "Olimpie" eta Elosuko Reyes Azkoitiaren arteko lehiak ikusmin handia sortu zuten. Elosuarra iazko errebantxaren bila zebilen arren, "Olinpic" bi tantuz nagusitu zitzaion, 22 eta 20.

# rl

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 15

- 12,00: Elgoibar - Hamaika Bat (Jubenilak)
- 15,00: Urki - Aloñamendi (2. errejionala)
- 17,00: Elgoibar - Beti Sutan (2. errejionala)
- 18,45: Eibartarrak - Lagunak (Neskak)

### Igandea 16

- 10,00: Urki B Arrasate (2. jubenilak)
- 14,30: Urki A Almen (2. jubenilak)
- 16,30: Elgoibar - Hernani (Infantilak)

### ESKUBALOA Kiroldegian Larunbata 15

- 16,00: Elgoibar K.E. - Jauja (Kadete neskek)
- 17,30: Elgoibar K.E. - Zarautz (Kadete mutilak)
- 19,00: Elgoibar K.E. - Baztango (Senior neskek)

### FUTBITOA Urasandin Igandea 16

- 10,00: Fotero - Miniox                      Hunde Verboten - Sporting
- 11,00: Resto del Mundo Pedrusko      Rebel Urbi Karkis
- 12,00: Berrogei Duro - Lucky Luke Tropicio Gruas Pana

# n

### FUTBOLA

- Haundi 3- Arenas 0
- Elgoibar 5 - Ondarru 2 (Kadeteak)
- Almen 0 - Elgoibar 1 (Infantilak)
- Kilimon 1 Elgoibar 0 (2. errejionala)
- Don Bosco 2- Elgoibar 3 (Jubenilak)

### ESKUBALOA

- Elgoibar 29 - Ormaiztegi 10 (Kadete mutilak)
- Urnieta 5- Elgoibar 17 (Kadete neskek)
- Elgoibar 14 Zarautz 22 (Senior mufflak)
- Zarautz 16 Elgoibar 12 (Senior neskek)

### FUTBITOA

- Gruas Pana Berrogei Duro 0
- Lucky Luke 2- Revel Urbi
- Karkis 9 Resto del Mundo 1
- Pedruskos 2- Hunde Verboten 2
- Sporting 4 - Fotero 2
- Mimox 6 Universidad de Chile 1

# FATRONIK SYSTEM, S.A.:

## Elkar lanean, erraminta makina bultzatuz

Orain dela zortzi urte, 1986. urtean, Euskal Herriko enpresa talde batek, proiektu berritzaie bati ekin zion. Horren emaitza da Fatronik. Enpresa hau 16 erraminta makina egilek, ikerkuntza zentru batek eta enpresa komertzial batek osatzen dute.

**A**ipatutako enpresa taldeak Estatu mailako erraminta makina egileen artean, %30 inguru falturatzen du. Mota guztietako makinak egiten dituzte: makina transfer bereziak, serie handietan egindako makina txikiak, torruak eta fresadoreak, txapa lantzeko makinak eta elektro-erosiozko makinak...

Fatronik sortzean, asmoa, taldea osatzen zuten enpresa guztientzat, Ikerketa eta Garapenerako zentru bat sortzea zen. Ordura arte, enpresa bakoitzak bere kontu egiten zuen ikerpen eta garapen lana, honek zekartzan arazoekin: ikerkuntza lanaren garestitzea, esperientzia falta, prestakuntza eza...

Fatronik-en helburua, taldeko enpresek, aurrerakuntza teknologikoen arloa ezagutu eta menperatzea da. Modu ezberdinetan ari dira sartzzen enpresetan aurrerakuntza teknologikoak: lan egiteko modu berrien bidez (CAD/CAM sistemak, DNC,...) enpresan bertan garatutako proiektuen bidez, edota enpresaz kanpo egindako proiektuen emaitzak erabiliaz.

Fatronik sortu berria zenean, Tekniker enpresaren gidaritzapean egiten ziren ikerkuntza proiektuak, berau baita taldearen ikerkuntza zentrua. Hamar bat proiektu



• Fatronik, erraminta makinaren aurrerakuntza teknologikorako zentrua da.

gauzatu ziren era honetan, beti ere erraminta makinaren inguruan. Proiektuotatik garrantzitsuen Fatronik-ek burututako FMS deituriko fabrikazio sistema izan zen. Fabrikazio sistema berritzailea da FMS hau. Helburuak, enpresek sistema hauek fabrikatzeko teknologia ezagutzea eta sistemak komertzialki bideragarriak izatea dira. Gaur egun, helbu-

ruak lortu dituzte eta Fatronik subkontratazio lanetan ari da FMSa erabiliz. FMSaren bezero nagusiak garraioen eta makina hidraulikoen sektorekoak dira.

Fatronik-en, ikertzaile talde bat sortu da. Proiektuetan parte hartzeaz gain, zubi lana egiten du ikerkuntza eta enpresa munduaren artean, proiektuen emaitzak ezagutzera emanez eta enpresetan aplikatuz. Alderdi teknikotik zein ekonomikotik bideratzen dira proiektuak Fatronik-en. Diru laguntzak EEEen ere eskatu izan dituzte, nazioarteko

proiektuetan parte hartzeko aukera izanik, askotan Fatronik lider izan delarik.

Fatronik, enpresen hatuketaren emaitza izanik, formula guztiz baliagarria denaz ziur daude bertako arduradunak. Enpresak elkartzeko joera nabaria da gero eta gehiago, bai Euskal Herrian bai eta Europan ere, batuketatik talde indartsuak sortu baitira.

### FATRONIK 'h, SYSTEM

#### ESEVI RESAELREN

- × IZENA: FATRONIK SYSTEM, S.A.
- × SORRERA URTEA: 1986
- × SORTZAILEAK: Ona, Lagun, Anayak, Geminis, Ladislao Aranburu, Doimak, Zayer, Estarta y Ecenarro, Etxe-Tar, Sacem, Makel, Mebusa, Jator, J-2000, Ibarria, Atera eta Tekniker.
- × GERENTEA: Luis Goenaga
- × HARREMANETARAKO PERTSONA: Rikardo Bueno.
- × IHARDUERA NAGUSIA: Erraminta Makinaren garapen teknologikoa.
- × LANGILE KOPURUA: 14
- × URTEKO FAKTURAZIOA: 160 milioi.
- × HELBIDEA: Ibaizte Industrialdea, z/g
- × TELEFONOA/FAXA: 74 29 1 2/74 34 92



## Laiotz aldizkari literarioaren lehen zenbakia kalean dago

"Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak" 93an irabazle suertatu ziren ipuin eta bertsoak, aldizkari baten bildu eta argitaratu ditu Elgoibarko Izarra Elkarteak. Aldizkariaren helburua, elgoibartarroi bertako gazteen literatur lanak ezagutu eta irakurtzeko aukera ematea da.

**A**ldizkariaren berrogeita lau orrialdeetan zehar hamar elgoibartarren lanak aurki daitezke. Lau, Prosa Lehiaketako ipuinak dira eta gainontzeko seiak "Exegiria" Bertso-Paper Lehiaketari dagozkionak. Lan bakoitzaren sarreran, egileari buruzko fitxa-teknikoa eta hainbat zertzelada azaltzen dira, idazlearen izakera pixkat bat sakontzeko helburuarekin. Testuak argazki eta marrazkiez lagundurik daude.

### Irakurterreza eta atsegina

Argitaratzaileen helburua aldizkari arina eta garbia egitea izan da, itxurari berebiziko garrantzia eman zaiolarik. OHOk eta ikaste-txe ertainetako ikasle bakoitzari ale bana emango zaio. Elgoibarko Iza-



E M lazko Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketetako irabazleak.

rrakoen nahia aldizkari hau ikaste-txeetako lan tresna izatea da, geletan irakurri eta landuko den aldizkari bat egin nahi izan dute eta. Laiotz jaso nahi duten gainontzeko pertsonak Elgoibarko Izarraren egoitzan izango dute eskuragai, doan.

### "Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak 94"

Iazko lehiaketako lan irabazleen bildumarekin batera aurtengo lehiaketarako deialdia zabaldu dute antolatzaileek. Aurten ere iazko oinarriak mantentzen dira, lehiaketa OHOk 5. mailakoetan hasi eta ertainetan bukatzen delarik. Parte-

hartzea oso altua izan zen iaz, 282 lan jaso ziren eta antolatzaileen nahia aurten ere beste borrenbeste jasotzea da.

Sariei dagokienean, benetan interesgarriak direla esan behar. Bi adibide jartzeagatik, ipuin saileko C mailako irabazleak 40.000 pezetako diru-saria dauka, eta bertsoetakoak 30.000 pta. Alabaina, antolatzaileek adierazi digutenez, ez daude dirua "erregalatzeko" prest eta sariak hutsik gera daitezke, lanek saria mereitzeko adinako mailarik ernaten ez badute.

**Fotero**  
OKINDEGIA  
OPILDEGIA  
San Frantzisko, 4  
74 07 35

**ORAIKO**  
SAN FRANCISCO 25  
ELGOIBAR

**ZIXIDUK  
ITU RGI NTZA**  
GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK  
Urasandi 26. Tel: 74 05 30

**ARMUETA**  
Baserriko  
haragietan  
berezia  
Harategi Urdaitegia  
San Bartolorne, 16..a. 74 06 40

**magu's**  
ILEAPAINDEGIA  
EDERGINTZA  
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

**BATZOKIA**  
JATETXEA  
ETA  
TABERNA  
P. rlii(uruz) 3.13 74 03 21

**MALAPE**

**XABIER**  
I LEAPAINDEGIA  
5.6-at«  
eri.prot eta ailduct  
San Barloioime 13. Tel. 74 19 97

# HIESarekin aurrez aurre

"HIESaren okerrera kuriositate falta da". Esaldi honen azpian antolatu ditu Errotatxok HIESari buruzko informazio eta prebentzio topaketak. Erakusketak, pelikula bat, kafe-teatroa eta hitzaldi-elkarrizketek osatzen dute egitaraua eta igandean, topaketei bukaera emateko, Elgoibarren HIESagatik hil direnei omenaldia

## GALDERAK

- 1 - Nola ikusten da HIESa gazte baten ikuspuntutik?
- 2 • Zein da zuen jarrera?
- 3 - Infortnazio nahikoa al duzue?
- 4 • Zeintzuk dira kutsatzeko bideak?
- 5 • Bildurra al diozu?
- 6 Biziko al zinateke HIESa daukan pertsona batekin?

egino zaie. Ekintzak herritar guztiei irekiak daude, denek izan dezaten informazioa eta guztien partehartzearekin eginiko topaketak izan daitezten. Guk, geure aldetik, gazteek gai honi buruz zer nolako iritzia duten jakin nahi izan dugu, nola bizi duten HIESa lagun artean, etxean, herrian... Hara hona jaso duguna.



## LAURA GOMEZ

16 urte

1 – Super problematika dala ikusten dogu. Gainera, nik gertutik ezagutu dot arazua ze

nerekin ibiltzen diazen batzuk etxian ikusi dabe HIESa.


2 – Gertutik bizi dozunian animatu eta ahal dozun bezela laguntzen dozu.

3 Ez, asko jota klase batzuetan esaten dizutena edo bestela etxean zeozer entzunda.

4 Erlazio sexualak, jeringilak konpartitza eta odol transfusioak.

5 Ez, gaisotasun bat baino ez da.

6 Bai, zergatik ez?



## GERTU

16 urte

1... Arazo bat da, HIESa zer den badakizu, hartzeko aniskua dagoela, eta sufritzeko ere bai.

2 – Nere ustez jendian artian ez dago prejuiziorik, nahiko onartuta dago baina ez dogunez asko berba egiten...

3... Informazio aldetik ez dao problemarik, nahikua dakagu eta.

4 – Sexuaren bidez, jeringilekin eta transfusioekin.

5 – Bai gaisotasun berria da oraindik eta igual urte batzutara kutsatzeko beste bide batzuk ere badaudela demostratuko da eta ez dago konponbiderik mementuz.

6 – Bai, behanezko prekaudioak hartuz baina bai.

15 urte

1 Puff! Ez dakit ba...

2 Lagunen artian zeozer komentatzen da. Orain adibidez pentsauta dakagu Errotatxok antolatutako hitzaldixetara jutia.

3 Piska bat bai, etxean esaten dizuena, eskolan, erreportaia bat ikusten, ez dala txistuaren bidez kutsatzen... baina gehiago beharko litzateke.

4 – Sexua, odola eta jeringillak.

5 Bai, beldur piskat beti dao, ezezaguna da eta.

6 Bai, inolako problemarik gabe.



## AMAIA SASTRE

16 urte

Nik nahiko gertu ikusten dot, Elgoibarren mordua zabaldu da.

2 y Lagunen artian komentatzen da batez ere noizean behin bateron bat

"raya" bat sartzen ikusten dogunian, asustatu egiten zera.

Bestalde, oraindik ere jende askok HIESa dakan jendia eskuakin seinalatzen ditxu eta bazterreratu ere bai.

3 Informazioa badakagu, Institutuan eman ziguten sexualitate ikastaro bat baina inoiz ez da nahikoa.

4 Jeringila berdinak erabiltzerakuan, mutil batekin ibiltzen zeranian preserbatiborik gabe...

5 – Bildurra? Bai. Aspaldixan asko entzun da operazio bat egitera jun eta transfusioen bidez kutsatu den jendiari buruzkuak, dentisten kasuak..

6 Printzipioz bai, baina hala ere, parean tokatu arte ezin dozu sekula ezer segurua esan.





**GARAJE BAT** dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Mamtduna.  
v\* 74 39 19

**GARAJE ITXI BAT** alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxua jotzeko. Lehen hait lehen.  
v 74 22 70 Igor  
Gauze 9etatik 10etara

**GARAJE BAT** saltzen da pista heltzean. Marraduna. Prezio onean,  
v 74 08 79

**GARAJE BAT** alokatzen da Urasandin.  
v 74 31 07

**GARAJE BAT** alokatzen da pista heltzean. Man'aduna da.  
27 74 21 64

## Salerosketak

**AKORDEOI BA'F** erosiko nuke. Botoiduna.  
v 74 00 78  
Deitu eguerdian edo gauean

**PEUGEOT 405 BAT** SALTZEN DUT.  
ts 14 30 52 Jose Maria  
Deitu 20,30etatik 22etara

**BROTHER TRIKOTOSA** BAT SALTZEN DUT.  
Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.  
v 74 18 51

**MENDIKO** plastikozko Kollach Viva Soft BOTA BATZUK saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)  
v 12 04 44  
Deitu eguerdian 1,30-2,00

Bainu gelarako **MANPARA**, **ARMAIRUA** eta **ISPILUA** saltzen ditut. Prezio oso onean,  
v 74 19 81 Ana Mari

**MOUNTAIN-BIKE** hat eta **URETAKO PAIPO** hat salgai, biak prezio merkean.  
a. 74 26 91

## Lana

**MARRAZKETA** **TEKNIK**Oko klaseak ematen dira. COU, UBI, IMH, LHI.  
rv 74 17 60 Iñaki  
74 34 01

**HAURRAK ZAINTEKO** neska euskaldun bat behar da. Arratsaldez.  
v 10 27 82

**PERFUMEAK SALTZEKO** jendea behar da. Infonnazio gehiagorako deitu:  
v 75 10 07  
4etatik aurrera

**UNIBERTSITAL** **IKASKETAK** dituen neskak edozein lan egingo luke, 5etatik 9etara.  
IT 74 04 86 Ana

**TITULUDUN** **PELUKERAK** lan egingo luke Elgoiharren. Asteartetik larunbatera. Espedentzia dut.  
v (94) 682 78 18 Iratxe

**HAURRAK ZAINDU** eta **ETXEKO LANAK** egiteko prest nago. Astelehenetik ostiralera.  
z- (94) 682 78 18 Iratxe

**HAURRAK ZAINDUKO** **GENITUZKE**, astegunetan arratsaldez eta astebukaeretan egun osoz eta gauzez.  
v 74 09 85 Nuria/Ana

Edozein **TESTU MOTA** **ORDENAGAILUZ** **PASATZEN** da. Grafikoak sanzeko aukera.  
Tr. 74 41 77 Idoia  
3\* 7422 77 Iratxe

Hezkuntza zientzietan lizenziatuak (Pedagogiat OHO eta REMeko klase **PARTIKULARRAK** ernango lituzke. Talde murriztuak.  
IT 74 39 24 Maite

Magisteritza eta ingenieritza teknikoan lizenziatua naiz eta **PARTIKULARRAK** ernaten ditut euskaraz eta erdaraz. OHO eta BUP.  
v 74 28 53 Alazne

## Elgoibarren

**ETXE BAT ALOKATUKO** nuke. Ez da handia izan behar. Ez zait axola non.  
v 74 44 04 Ana (Gauze 1  
Tr 12 16 02 Maite (Goizez)

Elgoibarren **PISU BAT** **KONPARTITZEKO** lagun haten beharrean gaude.  
lrr 65 38 76 Olatz

**PISU BAT SALTZEN DA** Mutrikun. 115m<sup>2</sup>, itsasora begira eta gela guztiek kanpokaldera ernaten dute.  
lrr 60 41 20  
Arratsalde 8etatik autTera

**EMAKUME ERLOJU** BA'F aurkitu nuen urriaren lean.  
v\* 74 01 01

## PREMIAIKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbufategia:

Larrialdiak..... 461111  
Txando hartzeko .....743354  
Planning ..... 742950  
Alkoholiko Anonimook. 740385  
D.Y.A (anbulantzia) . 464622  
Gurutze Gorria ..... 743864  
Mendaroko Ospitala 756264  
Drogomenpekotasun Z. 741008  
Odol Emaileak ..... 743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak..... 740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia ..... 740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .... 744366  
Kirol Zerbitzua ..... 744415  
Kultura Zerbitzua .... 742158  
Mendaroko Udala ... 756100  
Ongizate zerbitzua .. 743736  
Udalebea ..... 741050  
Udaltzaingoa ..... 741394

### BESTELAKOAK

Caritas ..... 740142  
Elgoibarko Izarra ..... 741626  
IMI ..... 741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia ..... 743525  
Musika Eskola ..... 742145  
Mintxeta ..... 744315  
Parrokia ..... 740842  
Polikiroldegia ..... 741361  
Postetxea ..... 741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia ..... 740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola ..... 74 08 79  
I.M.H, ..... 74 41 32  
Institutua ..... 74 02 67  
Ikastola ..... 74 44 41  
L.H.1..... 74 44 80  
Pilar Ikastetxea ..... 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

**BARREN** ..... 74 41 12  
El Diario Vasco ..... 74 40 73  
El Mundo ..... 74 22 67  
El Correo Español .. 74 10 82  
Egin ..... 11 84 21  
Deia ..... 74 11 57  
Zazpiki ..... 74 34 74

## 14 OSTIRALA

19,30 ZINEA

"El aceite de la vida"

✓ Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Errotatxo.

22,15 ZINEA

"La lista de Schindler"

✓ Herriko Antzokian

## LARUNBATA

10,00 ATLETISMO FINALAK

§,/ Mintxetan

18,30.22,15 ZINEA

"La lista de Schindler"

✓ Herriko Antzokian

22,00 ANTZERKIA

Antzeztaldea: Kili-kolo

✓ Maalan

## 16 IGANDEA

13,00 HIESAZ HILDAKOEI  
OMENALDIA

Haritz, Txalaparta taldea eta  
Bertsolari Eskolaren partaidetzaz.

✓ Plaza Haundian

Jarroian GIZA KATEA

1/ Plaza Haundian

Antolatzailea: Errotatxo

16,30 ZINEA

"El peque se va de marcha"

✓ Herriko Antzokian

18,30.22,15 ZINEA

"La lista de Schindler"

✓ Herriko Antzokian

## 17 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"La lista de Schindler"

✓ Herriko Antzokian

## ASTEARTEA

19,30 HBren MITINA

Hizlariak: Jone Goirizelaia eta  
Iñigo Iruin

✓ Herriko Antzokian

19,00 ESKOLARTEKO JOKUEI  
BURUZKO BILERA

Guraso, irakasle, entrenatzaile  
eta antolatzaileei zuzenduta.

1/ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"Tierras de penumbra"

✓ Herriko Antzokian

## OSTEGUNA

09,00.12,00 IRUDI BIZIAK ZINEA

"Quien ama a Gilbert Grappe"

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea:

Drogomenpekotasunen

Prebentziorako Zerbitzua.

## OSTIRALA

09,00 SAN VIATOR JAIA PILAR  
1KASTETXEAN

Bideoak, jolasak eta kirolak.

✓ Pllar Ikastetxea

22,15 ANTZERKIA

"Hala ba zan, ez ba zan, sar  
dadila..."

Antzeztaldea: In Fraganti

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 350 pta

# txand

## AMMIZIAK:

15, larunbata: Ormazabal

16, igandea: Ormazabal

17, astelehena: Etxeberria

18, asteartea: Etxeberria

19, asteazkena: Etxeberria

20, osteguna: Etxeberria

21, ostirala: Etxeberria

## OKINDEGIA:

16, igandea: BOUTIQUE DEL PAN


# A

## "La lista de Schindler"

Zuzendaria: S. Spielberg.

Aktoreak: Liam Neeson, Ben  
Kingsley, Ralph Fiennes.

Oskar Schindler nazien partiduko  
kide egin zen politikak batere axola  
ez zion arren. Negozioa egin nahi  
izan zuenarikoa alemaniarrek  
Polonia inbaditu zutenean, aberastea  
lortu zuen, merkatu beltzean  
negozioak eginez, langile judutanei  
soldatarik ez emanez eta SSko  
burokratekin zituen hanemanez  
esker. Europan zehar holokaustoa  
hedatzen zihoan heinean Schindler-  
en lantegia judutarrentzako  
bablesleku bihurtu zen.




### Mandida S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. Tr 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



iiidi

(e/i

ITZAI

ESKOLA

Minbadako Udal

fliwiu~t

'14 urtetik gorakoentzat

*Arduradunak*

**Pedro Mari Egaña "Mintxetan" (74 29 11)**

**Jobber Ardola "Egi" dEr (74 28 65)**

ftmt, r, ~

itOrriaren 27a arte

Mintxetako Instalakuntzetan



Antolatzailea:  
ELGOIBARKO UDALETXEA



-d\rekil 111

**GOBER1113**

**ABERTX4LEA**



a;cirrls una

# SEAT TOLEDO BERRIA



LUZAROAN IRAUTEKO EGINA

Eibar Motor, S. A. Otaola Hiribidea, 17. Tel. 10 36 42 EIBAR

**SEAT** *Bai!*